

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 830.000 euroekin finantzatu du desgaitasun-arloan egindako jarduerak

Diru-laguntza horiek eskatzeko epea otsailaren 4an amaituko da eta arlo horretan bakarrik esku-hartzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarte nahiz federazioek jaso ditzakete

Miércoles, 15 de enero de 2014

Nafarroako Aldizkari Ofizialak 830.820 euroko [diru-laguntzen deialdi](#) bat argitaratu du [gaur, asteazkena](#), urte honetan zehar desgaitasun-arloko elkarteek egindako jarduerak finantzatzeko.

Zehazki, Gizarte Politikako Departamentuak diruz lagunduko ditu: harrera eta informazio nahiz orientazioko jarduerak, dibulgaziokoak, sentsibilizaziokoak, elkar laguntzeko talde informalak eta gizarte nahiz desgaitasuna duten pertsonen eta haien familientzako borondatezko egituratu gabeko jarduerak. Diru-laguntza horrekin langileen eta funtzionamenduko gastuak finantzatu ahalko dira, adibidez: kontserbazio-obrak, alokairua, hornidurak erostea, gastu arruntak, banku-komisioak eta abar.

Laguntza horiek eskatzeko epea otsailaren 4an amaituko da eta eskuratu ahal dituzte, desgaitasun-arloan bakarrik esku-hartzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazio nafarrek, eta funts propioetatik edo beste diru-laguntza publiko edo pribatuetatik etorritako finantzaketa dutenak.

Horretarako, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentzian aurkeztu beharko dute, beste dokumentazio batzuen artean, egin nahi den proiektua, aurreko urtean egindako jardueren memoria, kontratatutako langileen zerrenda eta gastu nahiz diru-sarreraren aurrekontua.

Laguntzak lehiaketa-erregimena eginez banatuko dira eta, horretarako, zenbait irizpide erabiliko dira: kaudimen tekniko eta ekonomikoa, jarduera osagarrien garapena, baliabide propioen bidezko finantzaketa edo diru-laguntza hau aurreko urtean jaso izana.

Gogora ekarri behar da, Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Foru Legearen arabera, 20.000 euro baino gehiagoko diru-laguntza duten erakundeek edo beren urteko aurrekontuaren % 20 baino handiagoa bada, ondorengo jakinarazi beharko dutela: bere gobernu-organismoak nork osatzen duten, ordainsariak, beren karguengatik jasotako gainerako konpentsazio ekonomikoak, dedikazio- edo ardura-erregimena eta urteko azken kontuen kopia bat.